

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1992

EBAZPENA, 2023ko irailaren 25ekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen eta argitaratzen baita EKOS Sindicato Corporativo de la Ertzaintza – Ertzaintzaren Sindikatu Korporatiboa sindikatu-elkartearen (gordailutzea baino lehen «Asociación Profesional de Policía Vasca APPV» zenaren) estatutuen aldaketa jasotzen duen dokumentazioa gordailutuko dela. (Gordailuko kodea: 76/1/00111).

Sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeko bulego publiko honetan irekitako espedientea ikusi da, EKOS Sindicato Corporativo de la Ertzaintza – Ertzaintzaren Sindikatu Korporatiboa sindikatu-elkartearen estatutuen aldaketa eta estatutuak gordailutzeari buruzkoa. Jorge Ricardo Hueso Zabaleta jaunak aurkeztu du. Hori dela eta, ebazpen hau eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2023ko irailaren 11n aurkeztu da EKOS Sindicato Corporativo de la Ertzaintza – Ertzaintzaren Sindikatu Korporatiboa sindikatu-elkartearen estatutuak aldatzeko dokumentazioa eta estatutuak gordailutu daitezkeen eskatzeko dokumentazioa.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator Sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Dekretuan ezarritakoarekin.

Hirugarrena.– Elkartearen jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da, eta haren eremu funtzionala estatutuetan ezarritakoa.

Egitate horiei honako hauek aplikatuko zaizkie:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 11.m) artikuluan (Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuak aldatuta) ematen zaio organo honi sindikatu eta enpresa elkarteen estatutuak gordailutzeko eskumena.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikatu beharreko funtsezko arauak dira 11/1985 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, Askatasun Sindikalari buruzkoa, eta aipatutako Errege Dekretua, sindikatuen eta enpresaburuaren erakundearen estatutuak gordailutzeari buruzkoa.

Hirugarrena.– Gordailutzeko aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, zuzenbidearen arabera dela egiaztatu da, eta, ondorioz, onartu egiten da EKOS Sindicato Corporativo de la Ertzaintza – Ertzaintzaren Sindikatu Korporatiboa sindikatu-elkartearen estatutuak aldatzeko aktari eta estatutuei buruzko dokumentazioa gordailutzea eta argitaratzea.

Aipatutako oinarriak eta oro har aplikatu beharreko gainerako xedapenak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EKOS Sindicato Corporativo de la Ertzaintza – Ertzaintzaren Sindikatu Korporatiboa sindikatu-elkartearen (gordailutzea baino lehen «Asociación Profesional de Policía

Vasca APPV» zenaren) estatutuen aldaketari buruzko dokumentazioa eta estatutuak gordailutu daitezzen agintzea.

Bigarrena.– Gordailu hori EHAAan argitaratzeko agintzen da, Sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitako moduan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ematen den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Laugarrena.– Interesdunek gordailututako dokumentua aztertu ahal izango dute eta haren kopia eskatu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salan aurkaratu ahal izango da, Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean xedatutakoaren arabera (2011ko urriaren 11ko BOE).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 25a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
ANGEL LAPUENTE MONTORO.